

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2013ko apirilaren 22an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

5.- ESKUALDEKO ENPLEGU PLANENKO “ERAIKINEN BIRGAITZEKO KUDEAKETA” IKASTAROA EMOTEKO ENPRESEA KONTRATATZEA.

Xedea

Eskualdeko Enplegu Planeko “Eraikinen Birgaitzeko kudeaketa” ikastaroa emoteko enpresea kontratatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2013ko martxoaren 4an Merkataritza, Sustapen eta Turismoko batzorde informatiboan, baldintza administratibo eta teknikoak onartu ziran eta esleipen jardunbideari hasikerea emon jakon.

Bigarrena: ASIMAG SERVICIOS EMPRESARIALES, SL, ASCOBI-BIDEA eta FUNDACIÓN LABORAL DE LA CONSTRUCCIÓN DEL PAIS VASCO enpresei kontratazinoan parte hartzeko gonbitea bialdu jaken, 2013ko martxoaren 20an.

Hirugarrena: FUNDACIÓN LABORAL DE LA CONSTRUCCIÓN DEL PAIS VASCO enpreseak, eskaintzea bialdu dau.

Argudioak

Lehenengoa: Hautagaiak **A** kartazala “**Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena**” aurkeztu dau eskatutako dokumentuakaz.

Bigarrena: **B** kartazala “**Formula matematiko bidez kuantifikatu ezinezko erispideen dokumentazinoa**” eskatutako dokumentuakaz bat datorrela ikusten da.

Hirugarrena: **C** kartazaleko **PROPOSAMEN EKONOMIKOA** aurkezten dau. Proposamena **27.950 eurokoa** da.

Laugarrena: Errekerimentua egin ondoren, dokumentazinoa konpultsatu dau.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: FUNDACIÓN LABORAL DE LA CONSTRUCCIÓN DEL PAIS VASCO enpreseari, “Eraikinen Birgaitzeko kudeaketa” ikastaroa emoteko kontratua **27.950 euro**tan esleitzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko apirilaren 24an.

ONETSIA
ALKATEA